

MIKROERAKUSKETAK

- Oroipenak -

---

NAFARROAKO BLANCA  
ETA ARAGOIKO JUANEN  
EZKONTZAREN  
600. URTEURRENA (1420)

2020ko apirila

Egunero: 10:00 - 14:00

17:00 - 20:00

AGN

## NAFARROAKO BLANCA ETA ARAGOIKO JUANEN EZKONTZAREN 600. URTEURRENA (1420)

1420ko udan ospatu zen Iruñeko Katedralean Evreuxko Blanca (Karlos III.a errege Noblearen alaba eta Nafarroako tronuko oinordekoa) eta Trastamarako Juanen (Alfontso V.a Magnanimea Aragoiko erregearen anaia) arteko ezkontza. Lotura horren ondorio politikoez eta bi ezkontideen bizitzan gertatuko liratekeen hainbat gertakari garrantzi handia izango lukete azkenean Nafarroako erresumaren eta gainerako erresuma hispaniarren bilakaeran. Ezkontza horren sei mende betetzen diren urtean, Nafarroako Errege Artxibo Nagusiak (AGN) apirileko mikroerakusketan Nafarroako Blanca eta Aragoiko Juanen ezkontzarekin lotutako zenbait dokumentu erakutsiko ditu.

Blanca, Karlos III.a Noblearen eta Trastamarako Leonorren bigarren alaba zen. 1402an, 17 urte besterik ez zituela, Siziliako Martin I.arekin ezkondu zen. NAOk, hain zuzen ere, botereengatik, hau da, ezkongaien presentzia fisikorik gabe, Siziliako Catania hiriko gazteluan egin zen ezkontza horren notario-aktaren ale bat gordetzen du. 1409an, Sardinia Aragoiko Koroarentzat konkistatu zuen espedizioaren ondoren, Martin I.aren heriotza goiztiarretik aurrera, Blanca Siziliako Erresumako gobernuaren buru bilakatu zen. Hala ere, 1413an Juana ahizpa zaharraren heriotzak, Nafarroako koroaren oinordeko bihurtu zuenak, eta Fernando I. erregeak Aragoiko Koroako erresumen gobernuan egindako aldaketek egin zuten 1415ean Blancak Sizilia uztea eta Nafarroara itzultzea.

Bestalde, Juan Aragoiko Fernando I.aren eta Alburquerqueko Leonorren bigarren semea zen. Anaia nagusia den Alfontso V.a Magnanimoa, Aragoiko tronua oinordekoa, izendatu zutenean, Peñafiel dukea den aldetik, Juan Gaztelako Trastamara familiaren interesak defendatzera pasatu zen. Gainera, bere aitaren aginduz, Siziliako jeneral kargua ere bete zuen denbora labur batez, non, dirudienez, Blanca ezagutu zuen.

Juan eta Blancaren ezkontza hitzartzeko negoziazioak 1419an amaitu ziren, itunak pergamino zabal batean adostu zirelarik. Ezkontza botereen arabera egin zen non Juan infantea Diego Gómez de Sandovalék, Gaztelako aurreratuak, ordezkatu zuen. Hala ere, ez litzateke hurrengo urtera arte bi ezkontideek Iruñeko Katedralean egingo luketen zeremonia erlijiosoa. Ezkontza ospatu eta urtebete eskasera, Peñafiel jaioko zen bikotearen lehen semea, Carlos Trastamarakoa eta Evreuxekoa, norentzat bere amaren aldeko aitona zen Karlos III.a erregeak Vianako printze titulua sortu zuen. Ezkontza-hitzarmenetan ezarritakoa betez, ama eta semea jaioko eta urtebetera, Gaztela utzi eta Erriberrirantz abiatu ziren, printzea, Nafarroako tronua oinordeko den aldetik, Nafarroan hezia izan zedin, aitona babespelan.

Karlos III.a 1425ean hil ondoren, Blanca erregina bihurtuko zen, eta Juan errege ezkontide. Hala ere, 1441ean Blanca erregina hil izanak eta haren testamentuan klausula bat egoteak, zeinetan Karlos semea oinordeko izendatu arren, koroa aitaren baimenik gabe ez itozteko eskatzen zitzaion, eta horrek guztiak egin zuen Juanek Nafarroako tronuan jarraitzeko aukera izatea, Juan II.a bezala. Aita eta semearen arteko gatazkak eta agramontar eta beamontarren arteko erresumaren gero eta banderizatze handiagoak, Nafarroa krisi eta borroka garai batean bilakatzea suposatu zuen; eta gainera, bere anaia Alfontso V.aren heriotzaren ondorioz, Juan II.a Aragoiko errege bihurtu izanak, gainontzeko hispaniar erresumei ere eragingo zien XV. mendearen bigarren erdian.